



**"Azken boladako eraso
homofoboak ez dira kasu
isolatuak; zerbait
estrukturala dira"**

LGTBifobia • Iñigo Ranero Zornotzako Akelarre plataformako kidea da. Plataformak LGTBI herritarrei ikusgaitasuna emateko eta aliantzak sortzeko lan egiten du. Maiatzaren 17an, LGTBI komunitateak protestara irtengo du azkenaldian egondako eraso homofoboak salatzeke. • 6

**Lehenengo emakume
zuzendaria Itzulian**



Txirrindularitza • Alaitz Biritxinaga atxondarra Itzulia Women probako zuzendaria da. Ametsa errealitate bihurtu zaiola dio. • 20



**Hasi dira Abadiñoko
San Trokaz jaia**

Abadiño • Gerbasen kale-jiragaz eta dantzarien azken entseguagaz hasiera eman diote Abadiñoko San Trokaz jaiei. • 8



Maiatzaren 1etik 31ra
bitartean

**UDABERRIKO
ESKAINTZAK**

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



horretan. Espazioak topatu behar ditugu, eta horren ume txikiak ez ditugun amok elkartasunez egin beharko genuke borroka hori, plaza hori hartu behar dugu. Entzun dezagun kontatzeko duguna, eztabaidatu dezagun. Premiazkoa

Amatasuna zaintzeaz ari gara umeak zaintzeaz ari garelako. Umea zaindu nahi badugu ama zaindu behar dugu

da eztabaidaz gain mugimendu bat sortzea, feminismoaren gainontzeko borrokei garrantzirik kendu gabe.

Oso profil ezberdinetako testigantzetan ideia asko, modu batera edo bestera, errepikatu egiten dira. Horietariko bat da epaituak sentitu direla.

E.F.: Hainbat ondorio atera daiteke, eta bat horixe izan daiteke, epaitua sentitzearena. Biberioia ematen badiozu epaitua zara, titia ematen badiozu ere bai. Txalotzen diren bakarrak aitatxoak dira. Ume jaioberria motxilan hartu eta alfonbra jartzen zaie. Beste ideietako bat komunitatearen eta sarearen beharra da. Birpentsatzea zelan bizi garen familia nuklear txikietan, pisu txikietan, nora eraman gaituen kapitalismoak, produktibismoak, nola desagertu den baserria...

E.L.: Ahalduntzea ere errepikatzen den gai bat da. Aurkezpenean ere azaldu genuen moduan, bakar-dadea askotan aipatzen da, baina maitasun handia dago liburuan. Maitasuna eta ahalduntzea. Badaude itzalak, baina badaude argiak ere. Ideia batzuk errepikatzen dira baina ez dira errepikakorrak. Zenbat hari mutur atera diren batak bestea osatuz.

E.F.: Ia denek bereizten zuten zer den ume jaioberria, txikia edo koskorra. Denak dira zaurgarriak, baina amari eta amaren gorputzari lotuago dagoena eta lehenetsi behar den garaia ume txiki jaiobe-

"Amatasunaren bizipenak ez du zertan itogarria izan, sistema da amatasunari bizkar emanda dagoena"

Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek 'M ama* eme* ume*' liburua kaleratu dute Tene Mujika beka baliatuta. Amatasunaren inguruko bizipenak jaso dituzte

DURANGO • JONE GUENETXEA

Erika Lagoma Pombarrek (Lesaka, 1981) eta Estitxu Fernandez Maritxalarrek (Lesaka, 1975) amatasunaren inguruko lekukotzak jaso dituzte *M ama* eme* ume liburuan. Bizipen intimo horiek guztiak matiz guzkiekin jaso dituzte 13 lekukotzaren bitartez. Liburua irakurtzeak ispluaren aurrean jartzea dakar. Zaila, baina sendagarria, oztopoen gainetik maitasuna eta ahalduntzea gailentzen baitira.**

Hamahiru elkarrizketa egin dituzue. Zelako esperientzia izan da?

Estitxu Fernandez: Oso elkarrizketa sakonak izan dira, terapeutikoak.

Ez ziren kazetaritzako ohiko elkarrizketak bezalakoak. Argi genuen ohiko amatasunak nahi genituela, emakume gehienok hor sartzen garelako, baina ertzak ere ukitu behar zirela. Profil horien barruan ama bakarrak, banandutako amak, lesbianak, ama ez direnak... Elkarrizketatuak ez ditugu oso hurbiletik ezagutzen. Guretzat irakurleentzat besteko sorpresa izan da elkarrizketatuengandik jaso duguna. Elkarrizketatu bakoitza Matriuska bat izan da. Kapa horiek ateratzen joan gara. Hori ona da, aurreiritzirik gabe joan garelako, ideia zehatzik barik.

Erika Lagoma: Amatasun feministen bila joan gara, sistema zalantzan jartzen dutenak eta zirrikituen bila dabilzanak. Elkarrizketatuak bat datoz gauza batean: euren burua feministatzat dute.

June Fernandezek bere hitzaurrean dio emakumeen eskubideen borrokan amatasuna deserosoa dela. Ados zaudete?

E.F.: Harreman gatazkatsua izan da orain arte. Bere momentuan ukatu behar izan zelako. Garai batean amatasuna kartzela zen. Emakumearen destino naturala zen eta horren bitartez baino ez zen erreallizatu. Horren bitartez bakarrik

izango zen emakume. Gizonaren menpe, isilik. Ezer esan gabe. Feminismoak lan handia egin zuen egoera hori ukatuz. Amatasunaren instituzio zapaltzailea bera izan da ukatu dena, baina baita amatasunaren bizipen guztiak ere. Feminismo hegemonikoak hartu zuen bidea ukatzea izan zen. Amatasuna emakume guztien errealizazioa oztopo bezala ulertuz. Edo ama ez izan, edo umeen zaintza lehenbailen delegatu gizarte kapitalista honetan profesionalki errealtzatzeko. Oraindik feminismo hegemonikoa hor mugitzen da pixkat, ez direlako amen ahotsak entzun. Amatasunaren bizipenak ez du zertan itogarria izan, sistema da amatasunari bizkar emanda dagoena erabat, eta amok exigentziak jota egotea dakar horrek, gehiago ezin da egotea, baina ez amatasunak berak eragina. Hala ere, azpimarratu behar da norbaitek amatasunari begiratu eta begiratzen badio, hori feminismoa dela.

E.L.: Uste dut emakume askok erabakitzen dugula ama izatea, eta gero ez dakigula oso ondo hori nola enkajatu gure lanaren ideia horrekin. Zoragarriak izan behar dugu gauza guztietan. Amatasunaren momentuaren arabera oso zaila da borrokarako egotea, ez gaudelako

ANDER GILLENEA. ELKAR

Arantxa Tapiaren esanetan, bentzeno mugak Fumbarrin gaintitzen dira baina ez haren inguruko etxebizitzetan

Durangoko etxebizitzetan osasuna "bermatuta" dagoela dio. Udala ez dago ados. Tapiaren azalpenak "urriak" direla dio

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Arantxa Tapia sailburuak eskualdeko airearen kalitateari buruzko azalpenak eman ditu asteon, eta adierazi du Durangon "ondo" betetzen direla osasun arauak es-

katuriko parametroak: "Airearen kalitatea ez da txarra; justu kontrakoa", esan du. Dena dela, sailburuak onartu du herrian badagoela baimenduriko bentzeno kopurua gaintitzen den puntu bat. Fumba-

rri enpresa da hori. Jaurlaritzak airearen kalitatea neurtzeko azterketa egin zuen han 2021ean zehar, eta ondorioztatu zuen fundizio parean detektaturiko bentzeno kopurua metro kubikoko 5,75 mikrogramo-

tan kokatu zela urtean, batez beste. Hau da, arauak baimenduriko 5 mikrogramoen mugaren gainetik. Dena dela, sailburuak adierazi du osasuna "bermatuta" dagoela fundizioaren bueltako etxebizitzetan. Jaurlaritzak azterketak egin zituen Aramotz auzoan, San Roken eta Bustintza kalean, fundiziotik gertuen dauden etxebizitzetan. Honaiko datu hauek eman ditu: Askatasun Etorbideak Aramotz auzoagaz bat egiten duen puntuan 1,07koa zen metro kubikoko bentzeno kopurua (104 neurketa egin zituzten urte osoan zehar). Fumbarritik gertuen dagoen etxebizitza blokean, Bustintza kalean, batez bestekoa 0,83 mikrogramotan egon zen. (96 neurketa egin zituzten urte osoan zehar.). Azken kokaleku hauetako neurketa kopuruak, baina, Fumba-

rrin egindako 5.302 azterketetatik oso urruti daude.

Adierazpen "urriak"

Durangoko Udalak sailburuaren berbak baloratu ditu. Euren esanetan, azalpenak "urriak" izan dira. "Eskualdeko airearen kalitatearen arazoa puntu eta enpresa bakar batera mugatzen ahalegintzen dabil berriro Eusko Jaurlaritza, gainerako foku posibleak alde batera utzita", kritikatu du udalak. Tecnaliak udalarentzat egindako hatsaren inguruko ikerketak jaso zuenez, bentzeno pikoak herriko beste hainbat puntutan detektatu ziren. Aramotz auzotik urruti. Juan Mari Altuna kalean, 100 mikrogramoko eta 700 mikrogramoko bentzeno pikoak erregistratu ziren 2019ko egun bitan, urrian eta abenduan hurrenez hurren.

Elkarrekin Podemos - Ezker Batuak ere egin du balorazioa. Miren Gorrotxategi bozeramailearen iritziz, "neurgailuen kopurua ez da nahikoa", eta Zabalarra eskolan kokaturikoa, "gainera, matxuratu-ta dago".



Fumbarri fundizioaren kanpoaldea.

Ahal Dugu: "EAJk proposaturiko osasun zentroak arrazoia genuela erakutsi du"

"EAJk populistak ginela esan ondoren, orain, oportunismo ekintza batean, trenaren lurretan osasun zentro bat eraiki gura duela iragarri du", kritikatu du talde moreak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJk joan zen astean egindako proposamena zeresana ematen hasi da. Ahal Duguk dio jeltzaleen proposamenak "arrazoia" eman diela, talde moreak "hasieratik" jaso izan duelako "eskualdeko ospitalearen eskaera historikoa". "EAJk populistak ginela esan zuen eta orain, oportunismo ekintza batean, trenaren lurretan osasun zentro bat eraiki gura dutela iragarri dute", kritikatu du talde moreak. Bestalde, osasun zentro hori PERIAn kokatzeak inguruko trafikoa eragingo lukeela uste du Ahal Duguk: "Eskualdeko hamarnaka pertsona arreta jasotzera joanda, arazoa larriagotu egingo litzateke".



Durangaldeko Ahal Dugu taldeko ordezkariak.

San Faustoko frontoiko taberna zabalduko dute gaur

Inaugurazioa gaur, barikua, izango da, 19:00etan

DURANGO • JONE GUENETXEA

San Faustoko frontoi ondoko taberna zabalduko dute gaur. Gosari, bazkari, afari eta errazioak eskainiko ditu martitzenetik domekara, 6:00etatik 23:00ak

bitartean. Bestalde, San Faustoko frontoia alokatzeko aukera ere izango da aurrerantzean. Durango Kirolak-eko webgunearen bitartez alokatu beharko da.



Udal arduradunak tabernako arduradunagaz.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 13a
20. urtea - 892. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Maatzaren 17a LGTBfobiaren aurkako eguna dela eta, Ranerok eta Akelarreko kideek kalera irtengo dute, Bilbora, aldarrikapenekin bat egitera.

Zornotzan eraso homofobo bat izan zen apiril amaieran; Santurtzin gizonezko batek beste bat bortxatu zuen; Bilbon gizonezko batek gutxienez lau homosexual hil ditu. Zein da egoeraz egiten duzun interpretazioa?

Argi dugu eraso hauek ez direla kasu puntualak. Zerbait estrukturala dira, sistemak bultzaturikoak. Eta ez dira kalean bakarrik gertatzen. Aniztasun bat gorpuzten eta haragiztatzen dugunok etenbako erasoak jasaten ditugu, eta badago gizarte oso bat, modu batera edo bestera, eraso hori babesten duena. Bai konplize bilakatuta, bai isilik geratuta eta baita erasotzaile izanda ere. Pentsatu behar duguna da ea zein den gura dugun gizarte. Pedagogiatik konfrontaziora pasatu behar dugula uste dugu. Elkarretaratzeak beharrezkoak dira, baina pauso bat gehiago eman behar dugu. Azken finean, gure bizia arriskuan dago.

Norabidea, beraz, konfrontazioa da.

Orain arte konkistatuta genituen espazioetan atzerapauso bat egin dugula igarri dugu. Eta horrek aniztasuna gorpuzten dugunon arteko antolakuntza bat sortu beharra eskatzen du. Fronte amankomun bat. Kaleak, familiak, eskolak, horiek berriro konkistatu behar ditugu. Pedagogia alde batera utzi eta gure ekintzak beste era batera konfrontatzea eskatzen du horrek.

"Berdin digu arau zisheteroa gu onartzeko prest dagoen ala ez; ez dugu garena izateko baimenik eskatuko"

Zornotzako Akelarre plataformak LGTBI herritarrei ikusgaitasuna emateko eta aliantzak sortzeko lan egiten du. Iñigo Ranero plataformako kideetarikoa bat da. Pedagogiatik konfrontaziora salto egiteko sasoia dela adierazi du zornotzarrak



Modu batera edo bestera, konplize izanda zein isilik geratuta, badago eraso LGTBfoboak babesten dituen gizarte bat

LGTBI komunitateko kideek protesta egingo dute martitzenean, maiatzaren 17an, Bilboko Arriaga plazan.

Bilbokoa gure kolektiboari egiten zaion dei bat da. Gauza jakina da kolektiboaren barruan iritzi eta korrante desberdinak ditugula, baina une honetan batuta

egon behar dugula iruditzen zait. Izan ere, guranako erasoak areagotzen ari dira eta eraso horiek geroago eta indarkeria handiagoz datoz. Gure kolektiboa hemen dagoela ikusarazi behar dugu, zutik dagoela, erasoei aurre egiteko prest. Gero, badago beste kontu bat ere. Konplizeak behar ditugu,

aliatuak. Erasoak babesten ez dituzten gizon eta emakume heterosexuak. Gurea euren espazio zentrala ez den arren, ondoan behar ditugu, indar erakustaldia egiteko eta ahalduz ariketa egiteko.

Arau heteroan eta arau zisean oinarrituriko gizarteak prest al dago intsumisoak diren gorputz, identitate, genero eta orientazioak aterpetzeko?

Berdin digu prest dauden ala ez. Ez dugu horretarako baimenik eskatuko. Ez dut bizitza osoan baimenik eskatu eta ez dut gura ondorengoek baimena eskatu dezaten. Historian zehar, gure kolektiboa eta emakumeak bazterrean kokatu gara. Parte hartzeke, egoteko, baimena eskatu izan dugu, eta orain, hori egiteari utzi behar diogu. Nahikoa da. Ez gaudere gure gorputzak domestikatzeke prest. Autonomoki lan egiten eta etsaia zein den argi uzten hasi behar dugu. Gugaz ez dagoena gure etsaia dela ulertuko dugu. Hau da, taberna batetik erasotzaileak kanporatzen ez badira, ulertuko dugu taberna horretan ez gaituztela gura. Kuadrilla batetik erasotzaileak kanporatzen ez badira, ulertuko dugu hor matxismoa, homofobia edo transfobia babesten dituztela.

Gabiriako sei gudari omenduta ospatu dute Bizkargi Eguna

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzarrak, ehunka. Eta Larra-betzu, Muxika, Morga eta inguruetakoak ere, beste mordoxka bat. Guztiek bat egin zuten Bizkargiko tontorraren gainean, gerra zibilean borrokatu ziren gudarien erresistentzia omentzeko.

Aurtengo omenduak sei izan dira: frankisten aurkako borroketan Bizkargi defendatzen ibili ziren Gabiriako (Gipuzkoa) sei gudari. "Gudari horiek Amaiur batailoiko kideak izan ziren. Antza denez, batailoiak Amaiurko gazteluak erakutsitako erresistentziatik

hartu zuen izena, gaztelu hartan baturikoez Nafarroako konkistaren garaian erakutsitako erresistentziagaitik. Hain zuzen ere, aurtun 500 urte borobil betetzen dira borroka hartatik", azaldu du Juanlu Artabek, Bizkargi Gogoratuz elkarteko kideak.

Gainerakoan, jaiak eta aldarrikapenak bete zuten Bizkargiko gaina. Ez ziren falta izan Etxanoko herritarren txuzoa, bertsolariak eta musikariak.



Egunean zehar ez ziren musika eta bertsolariak falta izan.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea

HARRAPATZE
EGOERAK

IGOGAILUKO
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

Río de Oro elkarteak boluntario bila dabil udan Izurtzara etorriko diren ume sahararrak zaintzeko

Ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran, 6tik 10 urtera arteko hainbat ume etorriko da Izurtzara uda pasatzera

IZURTZA • J.DERTEANO

Río de Oro elkarteak kideek Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren hainbat ume hartzen dituzte urtero Izurtzan, elizaren ondoko erakinean. Azkenengo urte bietan, bertan behera utzi behar izan dute ekimena, baina aurten, egoera hobetu den honetan, bueltan dira. Baina 100 bat boluntario behar dituzte umeak zaindu ahal izateko. Oraingoan, izen-ematea bide onetik doala azaldu dute elkarteak kideek, baina boluntarioen zerrenda ez dago osatuta oraindino. Elkarteak webgunearen bitartez (www.riodeorodurango.com) egin daiteke izen-ematea.

6tik 10 urtera arteko hainbat ume ekarriko dute aurten, ekain amaieran edo uztail hasieran. Hile bi emango dituzte hemen, kanpamentuetara itzuli aurretik. Hemen dauden bitartean, askotariko ekintzak eta irteerak egiten dituzte.

Kontzertu solidarioa

Río de Oro hainbat bide ditu bere ekintzak finantzatzeko. Dohaintzan jasotzen duten dirua de eurtariko bat. Bart... Sax! Bartolome Ertzila Musika Eskolako saxofoi

taldeak gaur eskainiko duen kontzertua da horren adibide bat. Sarreraren salmentatik lorturiko dirua elkarte durangararentzat izango da. Kontzertua gaur izango da, maiatzak 13, 19:00etan, San

Agustin Kulturgunean, eta sarre-rak bost euroan ipini dituzte salgai. "Horrelako laguntzak jasotzea oso garrantzitsua da guretzat eta esker oneko gaude", adierazi du Río de Oroko Mikel del Arcok.



Río de Oroko kideak ume sahararrekin, Izurtzan.

Berbalagunek bisita gidatua antolatu du Mañariko Angurreta harrobia ezagutzeko

MAÑARIA • J.D.

Durangaldeko Berbalagunek irteera bat antolatu du Mañariko Angurreta harrobia ezagutzeko. Maiatzaren 20an izango da, 18:00etan. Mañariko frontoi pareko aparkalekuan elkartuko dira harrobira elkarregaz igotzeko. Victor Arrizabalaga artista eta eskultorea izango da

Maiatzaren 20ko irteerako gidaria Victor Arrizabalaga artista eta eskultorea izango da

bisitako gidaria. Izen-ematea 639 400 786 zenbakiko whatsapp-paren bitartez egin daiteke.

Angurreta harrobia arte garaikidea aurkezteko espazio berri lez berreskuratu zuten iaz, hainbat artistaren ekimenari eta lanari eskerrak. Joan zen irailean inauguratu zuten, Kanthoria taldeak eskainitako emanaldi batez.

Askotariko ekimenak Mallabian, kultur hamabostaldiaren barruan

'Erraiak arbasoen oihartzuna' dokumentala eskainiko dute

MALLABIA • J.D.

Kultur Hamabostaldiaren barruan, Mallabian askotariko ekimenak antolatu dituzte maiatz osorako. Esaterako, Dunbots txaranga kaleko giroa alaitzen ibiliko da zapatu eguerdian, Itzulia Women-eko txirrindularitza lasterketa Mallabira helzen den bitartean.

Datorren asteko martitzena LGTBIfobiaren aurkako nazioarteko eguna da eta ekimen bi daude horren barruan. Batetik,

eskolako umeek koreografia bat eskainiko dute eskolan. Bestetik, 19:00etan, LGTBIfobiaren buruzko film laburrak eskainiko dituzte Kontzejuzarreen.

Eguenean, *Erraiak arbasoen oihartzuna* dokumentala eskainiko dute Kontzejuzarreen, 19:00etan. Euskal Herri osoan zehar irrintziagaz zerikusituzena duten pertsonen testigantzak jasotzen ditu Ekain Martinez de Lizarduy zuzendari duen dokumentalak.

Otxandion herri bazkari jendetsuagaz ospatu dute Mirugainen 50. urteurrena

Urteroko Fundazio martxaren ondoren, plazan jai giroan bazkaldu zuten

OTXANDIO • J.D.

Mirugain Mendi Taldeak 50 urte bete ditu aurten eta ekimen askoz ospatzen dabilta. Joan zen asteburuan, Fundazio Martxa egin zuten Otxandio ingurutik. Antolatzaileak oso pozik daude harre-ragaz, nagusiak ez ezik gazte asko batu zelako. Otxandiora bueltan, herri bazkarian batu ziren. Trikitixa eta umeentzako jolasak ere izan ziren. Gazteen eta nagusien artean Mirugainen urteurreneko kamisetak banatu zituzten.



Joan zen asteburuan Otxandioko plazan egindako herri bazkaria.

Osasun
larrialdiak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Mikroinformatika
sistemak eta sareak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizaintzako
zaintza
osagarriak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Gizarte eta kirol
animazioaren
irakaskuntza

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Lan
bide
HEZIKETA



Aurrematrikulazio epea zabalik

Izena eman

Maiatzak
9tik 27ra

arizmendi
ikastola

pro
EGITASMOA



Gremioen gida

**Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

**Iturgintza**

**Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalatzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

**Zurgintza**

**ATERPE AROZTEGIA**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

**Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Elorrioko osasun zentroko zerbitzuak hobetzeko eskatu diote Jaurlaritzari

Pediatría eta emagin zerbitzua egunero eskaintzea eta ginekologia zerbitzua astean birritan ematea eskatzen du Elorrioko Udalak. Eskaria Eusko Jaurlaritzari egin diote

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak adierazi du haserre dagoela osasun zentroko lehen mailako arretako zerbitzuen egoera dela eta. Haserre hori adierazteko eta zerbitzua hobetzeko eskatzeko, gutuna bidali dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

"Azken urteotan, Elorrioko osasun zentroko zenbait zerbitzuren kalitateak okerrera egin du, pediatriakoak eta ginekologiakoak batez ere. Ginekologia desagertu egin da, eta, pediatriari dagokionez, ordezkapenik ez egoteak eta profesionalak beste osasun zentro batzuekin partekatzeak zerbitzu prekarioa ekarri dute, eta horrek kezka handia sortu du herritarren artean. Hutsuneak betetzeko ordezkapenik ez egoteak familiako medikuen eta erizainen arretan ere badu eragina", adierazi du Idoia Buruaga alkateak. Horrez gainera, "kalitatezko" zerbitzu publikoa aldarrikatzen dutela gehitu du. Bestalde, Durangoko anbulatorian



Elorrioko osasun zentroko argazkia.

elorriarrei eskaintzen zitzaizen zerbitzuetan atzerapauso bat eman dela helarazi diote Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari. "Elorrioren eskaintzen

ziren zerbitzuak murrizteaz gainera, Durangon egiten izan diren tratamendu asko Galdakaoko eta Gernikako ospitaleetan egiten dira", azpimarratu du alkateak.



Barraski inguruan egingo dute kirol parkea.

Atxondoko kirol parke berriko lanak martxan

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Atxondoko Udalak kirol parke edo parke biosasungarri berri bat eraikitzeari ekin dio. Dagoeneko hasi dira gunea egiten, eta udaletik jakinarazi dutenez, udarako amaituta egotea aurreikusten dute.

Gunea berri honek kalistenia parke bat, parkour pista bat, rokodromoa eta tirolina izango ditu. Guneak 5.020 metro

karratuko azalera izango du. Horrez gainera, Ziarreta kaleko kirol anitzeko gunea ere egokitu egingo dute eta teniseko egungo pista konpondu.

Atxondoko Udalak 326.000 euroan esleitu ditu lanak. Udaletik jakinarazi dutenez, proiektuaren erdia baino gehiago, 207.000 euro, Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du, eta gainerakoa, 119.000 euro, udalak.

Gazte Eguna eta umeentzako ikuskizunak San Trokazetako lehenengo asteburuan

Atzo eman zieten hasiera jaiei, Gerbasen kalejiragaz



Talde Batuakeko dantzariak 2019ko San Trokaz egunean.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko geldialdiaren ondoren, bueltan dira Abadiñoko San Trokaz jaiak. Atzo iluntzean eman zieten hasiera jaiei, Gerbasen ohiko kalejiragaz, txistulariekin eta Talde Batuak-en dantza saioagaz. "Abadiñoko jaiak berreskuratu ditugu eta adin guztietako herritarrek eta herriko elkarte eta taldeek hainbat astean egindako lanari eskerrak programa ederra sortu dugu", jakinarazi du Mikel Garaizabal alkateak. Bestalde,

Bihar gauean Raimundo el canastero, Iheskide eta The Claytonen kontzertuak egongo dira

eraso matxistarik bako jaiak gura dituztela azaldu du alkateak.

Egitarruari dagokionez, gustu guztietarako ekintzak egongo dira San Trokaz jaietan. Gaur, esaterako, Barrerabizi umeentzako antzerkia eta Musikariak taldearen kontzertua egongo dira.

Bihar Gazte Eguna izango da. Bazkari herrikoia egongo da, Gazte Eguneako jokoak eta Iheskide, The Clayton eta Raimundo el canasteroren kontzertuak, besteak beste.

Abadiñon sinadura bilketa hasi dute Kutxabanki arreta hobea eskatzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñon herri ekimena hasi dute Kutxabanki arreta zerbitzu hobea eskatzeko. "Herritarrek oso haserre eta minduta gaude. Gaur egun Kutxabanke Zelaietan, Abadiñoko gunea administratiboan, eskaintzen duena ez da zerbitzu bat. Horregaitik, sinadurak batzen hasi gara", adierazi du sinadura bilketaren bultzatzaileek.

Martxotik hona, Zelaietako bulegoa astean behin baino ez dute zabaldu, astelehenetan. Eta hamabost egunez bulegoa

itxita egon dela kritikatu dute herritarrek. "2022 hasieran euren kabuz erabaki dute Zelaieta zerbitzurik barik uztea, astean behin izan ezik, astelehenetan. Zerbitzurik ez duen herria basamortua da", adierazi dute.

Zerbitzu hobea eskatzeko, sinadura bilketa hasi dute Abadiñon. Gutuna sinatu gura duten herritarrek toki hauetan sinatu dezakete: Zelaietako denda eta tabernetan, Muntzaratzeko Imiñe tabernan, Jubilatuen Egoitzan, Mediatekan eta Mendiola-ko Errekatxo elkartearen.



Zelaietako Kutxabankeko bulegoa



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**



Karlos Berrizbeitiak irabazi du herriko saria.

Eduardo Alsasua irabazle kaleko pintura lehiaketan

BERRIZ • A. M.

Gasteizko Eduardo Alsasua Gracia izan da Berrizko Kaleko XXIII. Pintura Lehiaketako irabazlea. Herriko Saria Karlos Berrizbeitiak irabazi du. Guztira, hogeita bi margolarik parte hartu dute aurten egin den XXIII. edizioan. Bigarren saria Diego Manuel Fernandez Gonzalez asturiarrak irabazi du, eta Iker Mugarra ugaotarrak eraman du hirugarren saria. Parte hartzaileen lanak maiatzaren

21era bitartean egongo dira ikusgai, Kultur Etxean.

Txori kantariena, domekan

Bestalde, Txori Kantarien Lehiaketaren beste edizio bat egingo dute domekan, hilak 15. Hitzordua 09:15ean izango da, udaletxeko lorategietan (Euria eginez gero eskolako patioan egingo dute). Txinbo elkarte ornitologikoak antolatu du.

ZALDIBAR • A.M.

Goitibehera jaitsierak antolatzeko asmoagaz, hainbat zaldibartarrek Aldatsa elkarteak sortu dute. Iaz hasi ziren martxan, Goierri auzoan jaitsiera eta umeentzako ekitaldia antolatzeko. "Ekitaldiek izandako arrakasta ikusita, aurten eskaintza indartzea gura izan dugu", azaldu dute taldekideek ohar baten bitartez. Aurten, gainera, Zaldibarko Udalaren laguntza izan dute jarduera honetarako.

Lehenengo hitzordua maiatzaren 21erako ipini dute: Goitibehera Txikia antolatu dute egun horretarako. Hiru Gurutzeetatik behera jaitsiko dira, Goierri bidetik behera. Ekitaldi hau Maldan Behera elkarteagaz antolatu dute. "Eurek dakarte material guztia, Sputnik goitibeherak barne", esan dute. Hala ere, Aldatsaren helburu nagusia zaldibartarrak goitibeheren kulturara hurbiltzea da, ez bakarrik lasterketetan parte hartzea. "Bakarka, binaka zein kuadrillan, trastelekuan edo garajeen abandonatuta dituzten bizikleta zaharrak, trizikloak eta patineteak transformatzea eta goitibehera bat egitea lan polita da", gehitu dute.

Zaldibarko goitibeherazale talde batek Aldatsa elkarteak sortu du

Maiatzaren 21erako Goitibehera Txikia antolatu dute; ekainaren 11n ere jaitsiera egingo dute nagusientzat



Iazko goitibehera jaitsierako argazki bat. Delfin Zubizarreta.

Aurten, arratsalde

Zaldibarko Goitibehera Jaitsiera ekainaren 11n egingo dute. Aurten, baina, arratsalez egitea erabaki du Aldatsak, "oihartzun handiagoa izan dezan". Horrez gainera, jaitsiera Euskal Inertzia

Koparen barruan sartuko da. "Esperientzia handia duten partaideak eta askotariko ibilgailu ikusgarriak ekarriko dituzte: trizikloak, patinak, pneumatikoak, klasikoak, europearrak...", azaldu dute.

Garaitarrek txangoa egingo dute Kanbora eta Hondarribira

Maiatzaren 21ean Kanboko (Lapurdi) Arnaga etxea bisitatzea joango dira. Bazkaldu, Hondarribian egingo dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko nagusien elkarteak herritar guztiei zuzenduriko irteera antolatu du maiatzaren 21erako. Txangoa antolatu dute Kanbora, bertako bainuetxeengaitik famatua den udalerrilapurterrera. Goizean Arnagako etxea bisitatuko dute, bertako museoa eta baita lorategia ere. Gero, bazkaltzera joango dira Hondarribira, eta bazkalostean bisitariek denbora libre izango

dute herrian zehar nahieran ibiltzeko.

Izen ematea

Txangoan izena emateko azken eguna maiatzaren 15a da. Bertan parte hartu gura duten herritarrek 695 787 439 telefonora deitu beharko dute. Nagusien elkarteak bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dute. Gainerakoek, 30. Kanborako autobusak 8:00etan irtengo du, herriko plazatik.

LGTBIfobiaren Aurkako Egunagaz bat eginez, ekintzak antolatu dituzte lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

LGTBIfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, udalak, elkarteek eta ikastetxeek ekitaldiak antolatu dituzte elkarlanean, lurretan. Maiatzaren 17an, pegatinak banatuko dituzte Askondon, eta 19:00etan adierazpen instituzionala irakurriko dute. Bestalde, maiatzaren 18an, Josune Muñozek (Skolastika) *Entre géneros, líneas y viñetas* berbaldia emango du, 18:30ean, kultur etxean. Eskola umeek trans-akziorako ipuin kontaketa izango dute, eta kultur etxean LGTBI bandera ipiniko dute.



Juan Orobiogoitiako ikasleek ostadarraren kolorez margotu dituzte eskolarako eskailerrak.



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!

Pentsiodunek antolaturiko bizikleta martxa Durangaldera ailegatuko da ekainaren 15ean

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bizikleta martxa bat egingo du ekainaren 13tik 25era bitartean. Euskal Herria zeharkatuko dute, gutxieneko pentsioak, zaintza lanen banaketa eta zerbitzu publikoak aldarrikatzeko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Donostiatik irtengo dute ekainaren 13an, eta Donostian bertan amaituko dute ekainaren 25ean. Pentsiodunen Mugimenduak hamahiru etapako zeharkaldia egingo du Euskal Herrian zehar, aldarrikapenak egin eta "herritarren kontzientzia iratzartzeko". Ohar batean jakinarazi dutenez, honako hiru helburu hauek aldarrikatuko dituzte: gutxieneko pentsioak 1.080 euroan ipintzea, zaintza lanak banatzea eta zerbitzu publikoak bermatzea. Hori guztia ekitaldiekin tartekatuko dute, martxa igarotzen den herrietan ere ekintzak antolatuko dituzte-eta gainerako eragile sozialetan.

Bizikleta martxa Durangaldetik ere igaroko da. Ekainaren 15eko etapa Ondarroan hasiko dute, eta Zornotzan amaitu. Bidean, Mallabia, Berriz, Elorrio, Atxondo, Abadiño, Durango eta Iurreta zeharkatuko dituzte. Egun horretan, 45 bat kilometro egingo dituzte.

te. Gainerakoan, Euskal Herriko bost hiriburu nagusietara eramango dituzte protestak, zelanbait Euskal Herriari bira emanda.

633 kilometro guztira

13 etapak batuta, 633 bat kilome-

tro egingo dituzte guztira. Etapa bakoitzaren ezaugarriak honako hauek dira: 1. etapa (Donostia - Azpeitia) / 2. etapa (Azpeitia - Ondarroa) / 3. etapa (Ondarroa - Zornotza) / 4. etapa (Zornotza - Plentzia) / 5. etapa (Plentzia - Bilbo) / 6. etapa

(Bilbo - Laudio) / 7. etapa (Laudio - Gasteiz) / 8. etapa (Gasteiz - Altsasu) / 9. etapa (Altsasu - Iruñea) / 10. etapa (Iruñea - Elizondo) / 11. etapa (Elizondo - Baiona) / 12. etapa (Baiona - Irun) / 13. etapa (Irun - Donostia).



Gutxieneko pentsioak 1.080 euroan ipintzea eskatzeko mobilizazio bat, Durangon.

Hitanoa praktikatzeko beste saio bat Durangon, Berbalagunen eskutik

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Badirudi hitanoa lantzeko saioak bilakaera polita izaten ari direla. Durangaldeko Berbalagunek behintzat saioak antolatzen jarraitzen du, eta datorren astean beste hitzordu bat eskainiko du hitanoa ikasi edo praktikatuta gura dutenentzat. Saioa maiatzaren 17an egingo dute, Durangoko Berbagunetan (Saibi kalea, 10). 18:30etik 21:00etara batuko dira.

Mendilagun, Abadiñon

Bestalde, Berbalagunek Mendilagun programari loturiko beste irteera bat egingo du maiatzaren 21ean. Ibilaldia Abadiñoko Txanporta plazan hasiko da, 09:00etan, eta udalerri horretako Irazola, Sagasta, Atxarte eta Untzilla inguruak zeharkatuko dituzte. Ibilaldia 13 bat kilometrokoa izango da eta Txanporta plazan amaituko da. Ekintza baterako zein besterako, izena eman beharko da 639 400 786 telefonon.

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta

Azken agurra eman diote Anton Arieta Athleticeko jokalaririk historikoa izandakoari

Zapatuan hil zen, 76 urtegar, eta astelehenean egin zuten bere oroimenezko hileta elizkizuna



2014an Durangoko Kulturalak Arieta omentzeko Tabira zelaian egindako ekitaldiko irudia. ATHLETIC CLUB ETA ELORZA

DURANGO • J.D.

Athleticeko jokalaririk ohi izandako Anton Arieta-Araunabeña Piedra joan zen zapatuan hil zen, 76 urte zituela. Athleticen talderik oroi-tuenetariko baten parte izan zen, 1964tik 1974ra. 358 bider defendatu zuen elastiko zuri-gorria, hamar denboralditan zehar eta, guztira, 83 gol sartu zituen. Errege Kopako lau final jokatu eta eurretari bi irabazi zituen. Irabazitako final biak Santiago Bernabeun jokatu zituzten, Elx-en aurka 1969an, eta Castellonen aurka 1973an. Final bietan sartu zuen gola.

Zapatuan Athleticetik eta Valentziatik San Mamesen jokaturiko partiduen aurretik, minutu bateko isilunea egin zuten eta jokalariek besoko beltza eraman zuten bere omenez.

Politikan

Jessica Ruiz
Perez
PSE-EE



Lehetasunak

Pandemiaren ondoren, Palma-ko sumendia eta Ukrainako gerra etorri ziren eta orain Pegasus daukagu modan. Komunikabideak, prentsa eta sare sozialak etengabe dabilta espioitzaren gaiarekin. Benetan hori al da hiritar arruntari interesatzen zaiona? Erantzuna ezezko biribila da. Jendea benetan kezkatzen duena gasolinaren eta argiaren prezio-igoera, fakturak, alokairu edo hipotekak ordaindu ahal izatea eta hilabete amaierara lasai iristea dira.

Horretarako, lehenik eta behin, lanpostu ona eta egonkorra eduki behar genuke. Askok lan erreforma kritikatu zuten aurkako botoa justifikatzeko (EAJ eta EH BILDU), baina errealitatea da emaitzak ematen ari dela. Egia da hasieran erreforma indargabetzea zela proposamena, baina gobernatzen duen orok daki gobernatzea desiragarria eta lor daitekeen gehiena uztartzea dela. Eta horixe egin zen. Batzuek aurkako botoa desenkusatu zuten, haien esanetan lan erreformak ez duelako Estatuko aldean hitzarmen autonomikoen nagusitasuna bermatzen. Datu objektiboek erakusten dutenez, apirilean kontratazio mugagabearen gorakada errepikatu da, eta horrek maximo historikoak markatu ditu berriro (urtarrilean kontratuen %12 izan ziren mugagabeak, otsailean %16, martxoan % 21,5 eta apirilean % 30,5).

Durangoko langabeziari dagokionez, 1.359 langabe ditugu, eta horietatik erdiak baino gehiago 45 urtetik gorakoak dira. Ziur nago hauei Pegasus askorik ez zaiela axola. Beraz, jar dezagun arreta hiritarra benetan kezkatzen duen horretan.

Durangaldea asteen

Abadiñoko EH Bildu: "2022an ez da aurrekontu parte hartzailerik egongo"

ABADIÑO | Abadiñoko EH Bilduk prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, 2022an ez da aurrekontu parte hartzailerik egongo. "Abadiñoko Udala ez da gai izan enpresa bat kontratatu eta esleipen prozesua garaiz egiteko. Honek berriro erakusten du parte hartzearen eta kudeaketa eraginkorraren kulturen oraindino bide luzea dugula egiteko Abadiñon", azaldu dute EH Bildukoek.

Durangoko Alde Zaharreko tabernariak Udaberri Festa antolatu dute zapaturako

DURANGO | Durangoko Alde Zaharreko tabernariak Udaberri Festa antolatu dute zapaturako. 13:30ean emango diote hasiera egunari, bermut txapelketagaz eta mariatxiek. Osteen, paella jan herrikoia egongo da. Arratsaldean, Sugarri music 80 fanfarreak poteoa girotuko du eta 21:00etan DJa egongo da.

Zaldibarko jaietako kartel lehiaketako lanak maiatzaren 27ra arte auzetatu ahalko dira

ZALDIBAR | Zaldibarko jaietako kartel lehiaketaren 29. edizioa da aurtengoa. Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 27a izango da. Irabazleak 250 euro irabaziko ditu eta 150 euroko sari bat egongo da bigarren sarituarentzat. Horrez gainera, 14 urtetik beherako parte hartzailerik onenarentzat 100 euroko balioa duen sari bat egongo dela adierazi dute udal iturriek.



AIDAEk eta Azkuna egoitzak lankidetzat ituna sinatu dute integrazioa bultzatzeko

ZORNOTZA | Zornotzako Azkuna egoitzak eta desgaitasuna duten pertsonen integratzaileak AIDAE elkarteak lankidetzat hitzarmena sinatu dute. María José Arenaza egoitzako zuzendariak adierazi du itun horren helburua gizartean indarrean "dauden estereotipoak gainditzeko" eta "kolektibo biak integratzeko" asmoa dela. Lankidetzaren lehenengo emaitza dantza inklusiborako saio bat izan da. "Dantza horri eskerrak, gaitasuna duten eta gaitasunik ez duten pertsonak konektatu gura ditugu, mugimenduagaz, musikagaz gozatzeko, unea partekatzen, dibertsioz eta konplizitatez", adierazi dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



HITZ EZKUTUA




Idatzi behan alboko hitz ezkutua.

א' אלף תשס"ז


EGIN MARRAZKIA




Egin marrazkia karratutxoak kontuan izanda. Gero margotu ezazu.




SUDOKUA

Bete itzazu hutsuneak
beheko irudiekin. Gogoratu
hizki bakoitzak behin agertu
behar duela lerro, zutabe eta
area bakoitzean.




DOMINOA



BUKATU MARRAZKIA

Geziak jarraitu eta bukatu beheko marrazkia. Zer izango ote da?

1 ↗ 1 ↘ 1 ↗ 1 ↘ 1 ↗ 4 ↓ 2 ↙ 1 ← 2 ↙ 2 ← 4 ↓
1 → 1 ↗ 2 → 1 ↘ 1 ↓ 1 ↙ 2 ← 1 ↖ 1 ← 4 ↓ 2 ←
9 ↑ 2 ← 2 ↖ 1 ← 2 ↖ 4 ↑ 1 ↘ 1 ↗ 1 ↘ 1 ↗ 1 ↘





'Arima'

DANTZA BERRIZ :: Maitzak 14

Amaia Elizaranen azken ikuskizuna ikusgai Berrizen

Amaia Elizaran dantzari tolosarrak 'Arima' lana taularatuko du, zapatuan, Berrizko Kultur Etxean. Ia ordubeteko ikuskizunak dantza garaikidea eta folk musika irlandarra uztartzen ditu, eta fase horretan Hothouse Flowers taldeko liderra den Liam Ó Maonlaí musikari irlandarraren laguntza izan du. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da.

Nazioarteko hainbat artista-gaz lan egin eta gero, 2015ean ibilbide propioari ekin zion Amaia Elizaranek, eta dantzari

gipuzkoarraren seigarren lana da 'Arima'. Elizaranek sinpletasunaren edertasuna aldarrikatu gura du pieza honetan, azaletik funtsezkoa bidaia eginez. Bere ibilbide artistiko eta profesionalean aurrerapauso lez definitzen du obra Elizaranek. "Bidaia emozional argi bat egiten dugu piezan, betierekoa edo eternala dena bereziki aztertuz", azaldu izan du.

Elizaranek otsailaren 5ean estreinatu zuen 'Arima', Donostiako Gazteszenan.

Maiatzaren 13an

ABADIÑO santrokazak
'Barrerabizi' umeentzako antzerkia, 17:00etan, probalekuan.
Musikariak, 19:00etan, Ferialeku plazan.

DURANGO musika
Bart...Sax!, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Ekitaldian Izaro Ertzilla, Esti Ibarra eta Irati Bilbao abeslariak abestuko dute. Sarrerako dirua Río de Oro elkartearentzat izango da.

ELORRIO antzerkia
'Su(i)rrealismoa' (Circle or Trust & Logela), 20:00etan, Arriola antzokian.

MAÑARIA antzerkia
'Legoa gara gu' (Barsanti), 18:30ean, Herriko plazan.

ZORNOTZA ikuskizuna
'(EI) BION(m)BO(A)' (Artez Hobe), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 14an

ABADIÑO santrokazak
Bizikleta martxa Ganbarru Txirrindulari Elkartek antolatuta: Abadiño-Gernika-Laida-Abadiño, 08:00etan.
Gazte bazkari herrikoia, 14:00etan, Ferialeku plazan. Ondoren, Gazte Eguneko jokoak.
Grafiti tailerra 12-16 urte artekoentzat, 16:00etan, Txaporta kultur etxearen aurrean.

Raimundo el canastero, 19:00etan.
Iheskide + The Clayton, 21:30ean, Txanporta plazan.

DURANGO antzerkia
'Ama' (Marie de Jongh), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO udaberri jaia
Bermut lehiaketa, 13:30ean, Durangoko Alde Zaharreko tabernek antolatuta. Mariatxiak girotuta.
Paella herrikoia doan, 15:30ean.

Poteo herrikoia **Sugarri fanfarreak alaituta**, music 80, 17:30etik 20:00etara.
Dj Frank Music 80, 21:00etatik 01:00etara.

IURRETA musika
KSKA, 18:00etan, Abadetxean.

IURRETA musika
4kote, 18:00etan, Amezketa auzoan. Musika 'Auzorik Auzo' egitarauaren eskutik. Ondoren, auzotarrekin luntx xume bat.

MAÑARIA ikuskizuna
'Urbasa' (Hutsun Txalaparta), 20:00etan, Herriko plazan.

ZORNOTZA ikuskizuna
'Eta tira eta tunba' (Joseba Tapia), 20:00etan, Zornotza Aretoan. Amorebietako Konbenioaren 150. urteurrena.

Maiatzaren 15ean

ABADIÑO santrokazak
Meza, 12:00etan. Ondoren, **ezpatadantzari eta irlanderen dantza saioa**, San Trokaz plazan.
'La tartana' (Trocós Lucos), 17:30ean, Ferialeku plazan.
Oxabi taldea, 19:00etan, Txanporta plazan.

MAÑARIA musika
Anje Duhalde, 12:00etan, Herriko plazan.

Maiatzaren 18an

ELORRIO hitzaldia
'Pandemia urteen inguruko hausnarketak' (Hizlaria: Juan Luis Uribe Serrano, mediku erretiratua, osasun publikoan aditua), 19:00etan, Iturri kultur etxean. Kainabera elkarteak.

IURRETA hitzaldia
'Entre géneros, líneas y viñetas' (Hizlaria: **Josune Muñoz, Skolastika**), 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

MAÑARIA ipuinak
'Amelie eta Xirrikiten jostunak', umeentzako ipuin kontaketa saioa, 18:00etan, Kultur Etxean.
'Isiltzen joan zirenak' helduentzako saioa, 19:30ean.

Maiatzaren 19an

DURANGO antzerkia
'Amua' (Axut! eta Artedrama), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO formakuntza
Durangoko Udaleko Kultura eta Gizarte Ekintza arloko diru laguntzak, 18:30ean. Izena emateko durangokosmopolita@gmail.com helbidera idatzi edo 648 511 741 telefono zenbakira deitu.

ZORNOTZA hitzaldia
'Liberales y carlistas ante la democracia (1868-1876)', (Hizlaria: Mikel Urkijo EHUKO irakaslea), 20:00etan, Zelaieta Zentroan. Amorebietako Konbenioaren 150. urteurrena.

Maiatzaren 20an

ABADIÑO santrokazak
Disko Txikia: Dj Porru, 18:00etan, Txanporta plazan.
'Kantu bat gara' (Jon Maia), 22:00etan, Ferialeku plazan.

ELORRIO musika
Sacco + Oki Moki, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA antzerkia
'Rebelión en la granja' (Alopargo), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

MAÑARIA dokumentala
'Tipularen sehaska kanta', 19:00etan, Liburutegi Zaharrean.

Zinema

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Orkestra Iurtarra**
barikua 13: 17:00
domeka 15: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **Mentes maravillosas**
barikua 13: 19:00
zapatua 14: 18:30 / 20:30
domeka 15: 19:30
astelehena 16: 18:15 / 20:15
martitzena 17: 19:30
eguztzena 18: 19:30

• **Esperando a Mr. Bojangles**
barikua 13: 19:30
zapatua 14: 18:00 / 20:30
domeka 15: 19:30
astelehena 16: 19:00
martitzena 17: 19:30
eguztzena 18: 19:30

• **Dr. Strange en el multiverso de la locura**
barikua 13: 19:30 / 21:00
zapatua 14: 17:00 / 19:45
domeka 15: 17:00 / 18:30
astelehena 16: 19:00

+ • **Cinco Lobitos**
martitzena 17: 19:00

• **I Puritani**
eguztzena 18: 19:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA


• **Luzzu**
zapatua 14: 20:00
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:00

:: **Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **Alcarrás**
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:15

• **Go fish: ¡salvemos el mar!**
domeka 15: 17:00

• **Por Don Carlos**
martitzena 17: 20:15



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

“Alerta taldeak Iruñean eurekin jotzea eskaini digu, 25. urteurreneko biran”

Konorte boskoteak Durangoko eta Zornotzako kideak batzen ditu; hamar abestik osatzen dute kaleratu duten diskoa



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

TPK [Te Parto la Kara] eta Rise Up taldeen errautsetatik jaiotako taldea da Konorte. Oraitsu, doinu eta berba zorrotz eta zuzenez osaturiko lan berria kaleratu du Urtzik (bateria), Morok (baxua), Alainek (gitarra), Paulek (ahotsa) eta Oñatek (gitarra) osatzen duten taldeak. Hasieran egiten zituzten punk bertsoak guztiz alboratu barik, denboragaz modu naturalean egin dute Konorterako bidea.

Zelako harrera izan du diskoak?

Goiz da hori esateko, baina, egia esan, ez dugu ezer handirik espero. Atera gura izan dugun proiektua da, geuk eta geuretzat egindakoa. Dena dela, uste dugu harrera ona

izan duela. Etorkizunean beste bat ateratzea espero dugu.

Zeuen kabuz grabatu eta kaleratu duzue. Zelako prozesua izan da?

Geuk grabatu eta masterizatu dugu dena, baxu-jotzailearen estudioan [Silent Town Records]. Prozesua nahiko luzea izan da eta ordu asko sartu ditugu estudioan pandemia garaian, horrek suposatzen dituen arazoekin. Askok ikasi dugu prozesuan zehar; orduan gehien sartu dituen taldekidea Moro izan da. Berak hartu du ardura nagusia grabazio eta masterizazio lanetan.

Hardcore eta metal eraginak nabariak dira zuen doinuak.

Influentziak zenbaezinak dira. Alde batetik, umetatik eragin dituzten Euskal Herriko metal, rock

eta punk taldeak aipatu behar, eta nazioarteko beste askok ere asko eragin digute, batez ere hardcore eta metal taldeek; Deftones, Pan-

“Askatasun haziak” abestia Patxi Ruiz gose eta egarri greban zegoen bitartean konposatu genuen; Pablo Haselek ere abesten du bertan

tera, Comeback Kid eta Madball taldeek, esaterako. Gure abestien hitzak nahiko zuzenak dira, kritika sozial eta politikoa egiten dugu. Egia esan, inoiz ere ez dugu horretaz berbarik egin taldean, abesti

guztiak normaltasunez irten dira, gure eguneroko eztabaidetan dauden gaiak direlako. Agian, *Kiratsa*, *Ekaitza* eta *Boikot* abestiek definitzen dute gehien gure taldearen nortasuna, egungo zirku politiko eta mediatiko ororekiko gure nazka argien eta zuzenen adierazten dutenak direlako.

Pablo Hasel rap abeslariak ere parte hartu du.

Aspalditik ezagutzen dugu elkar, preso politikoei elkartasun mugimenduaren bitartez. Pablo Hasel militante komunista estatu faxistak bahituta du kartzelan, eta hara joan gara bera bisitatzerako. Ez dugu kontaktua galdu. Diskoa berari eskaini gura izan diogu, eta, ahal dugun neurrian, ekonomikoki

ere laguntzen ahalegintzen gara. Berak parte hartu duen abestia kartzelan bizia galdu zuten PCE(r)-ko Kepa Krespo eta Grapoko Jose Manuel Sevillano presoek buruzkoa da; Patxi Ruiz preso politikoa gose eta egarri greban zegoen bitartean konposatu genuen; Pablo oso ondo ikusi zituen gaia eta abestia, eta Urtzik lyric bideoa egin zuen YouTubean publikatzeko.

Euskal Herriko metal, rock eta punk taldeek eragin digute, baita nazioarteko beste askok ere; Deftones, Pantera, Comeback Kid eta Madball taldeek, esaterako

Zuzenean aurkezteko gogoz?

Zornotzako eta Ondarroako gaztetxeetan eman ditugu azken kontzertu biak, eta diskoa oraindino atera barik bazegoen ere, diskoaren aurkezpena izan dira guretzat. Diskoa ordurako publikatuta egotea geneukan buruan, baina ezinezkoa izan zaigu. Kallean kontzertu bat ematen ahalegindu gara Durangon, baimena eskatuta, baina udalak ukatu egin digu aitzakia anbiguoak ipinita. Badugu beste kontzerturen bat lotuta, eta beste batzuk airean, baina gurago dugu oraingoz ezer ez iragarri. Oraingoz, Durangoko Alerta taldeak Iruñean eurekin jotzea eskaini digu, 25. urteurren biran. Egia esan, orain arte ez gara asko mugitu kontzertuak lotzeko; beharbada, orain, diskoagaz apur bat gehiago mugitzen ahaleginduko gara.

Non erosi daiteke diskoa?

Oraingoz, formatu fisikoan Durangoko Amaluraren, gilda eta mariatorik gozonenak dituen tabernan, eta Txalapartan, musika eta giro ezin hobea duen tabernan dago eskuragarri. Otxandion ere erosi daiteke, Danoena tabernan. Gasteizko Record-Ando banatzaileak ere kopia batzuk eskatu dizkigu. Dena dela, diskoa zenbait musika plataformatan dago entzungai (Spotify, YouTube, Bandcamp...).

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Logela eta Circle of Truste.

Logelak surrealismoaren inguruko berrirakurketa proposatu du lan berrian

Elorrioko Logelak eta Circle of Trustek 'Su(i)rrealismoa' estreinatuko dute gaur; elkarlanean egiten duten seigarren obra da; Arriolan izango da emanaldia, 20:00etan

DANTZA • A. M.

Surrealismoaren korronteko artisen ondarea aztertu eta XXI. mendeko kodeekin berrinterpretatu du Elorrioko Logela konpainiak *Su(i)rrealismo* lanean. "Bigarren Mundu Gerra piztu bitartean, Parisko kafetegiak hainbat diziplinako artisen topaleku bilakatu ziren. Bertan sortu zen surrealismoa. Artista horiek inkontzientea irudimenaren iturria dela erakutsi gura zuten", azaldu dute Logelako kideek. Multimediaren eta dantzaren bitartez, Pablo Picasso, Dora Maar, Joan Miró, Salvador Dalí eta beste zenbait artistaren munduan murgiltzera gonbidatuko dute

ikuslea. "Margolanek, argazkiek eta eskulturek bizitza propioa hartuko dute dantzaren eta bideo-proiektzioen bitartez", diote. Emanaldia gaur izango da, maiatzak 13, 20:00etan.

Logelak eta Circle of Trustek elkarregaz sortu duten seigarren lana da hau. Aurretik, *Klonk*, *Papir...*, *flexia*, *Divenire*, *Nagare* eta *Codice* obrak sortu dituzte elkarregaz. Circle of Trust Zaragozan (Espainia) sortu zen, 2002an, eta hip hop kultura sustatzea da euren helburuetariko bat. *Su(i)rrealismoren* kasuan, Alberto Pardo 'Extremo' arduratu da koreografia zuzendaritzaz; Pardo munduko *breaker*

handienetariko bat da. Dantzan Abel Escribanok, Diego Bayonak, Marcos Pardok eta Carmina Gimeno egingo dute. Logela kolorez

Imanol Garaizabal eta Juan Manuel Aragon arduratu dira 'Su(i)rrealismoa'-ren zuzendaritza

beteriko unibertso multimedia sortzeaz arduratu da. Bideo sortzek, dantzariak, espazio eszenikoak eta argiak elkarri eragiten diote.

BOSen mendeurrena ospatzeko erakusketa ikusgai

Bilboko Orkestra Sinfonikoaren mendeurrena ospatzeko erakusketa Bartolome Ertzillan ipini dute

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bartolome Ertzillako kanpoaldean, Bilbao Orkestra Sinfonikoak ehun urtean mugarri izan dituen ekitaldiak laburtzen dituen erakusketa ipini dute. Hain zuzen ere, asteotan hainbat ekitaldi egiten dabilta BOSen mendeurrena ospatzeko. Erakusketa Durangora ekartzeak duen garrantzia azpimarratu du Ima Garrastatxu alkateak: "Lankidetzeta eta borondatea egonez gero, ekimen ederrak posible dira". Aldi berean, Begoña de Ibarra Bizkaiko Foru Aldun-

diko zuzendariak ehun urteko jarduna nabarmendu du: "Ehun urte hauek kalitatea eta profesionaltasuna bermatzen dituzte. BOS kulturaren ikurra, erreferentea eta enbaxadore bikaina da". Aurkezpen ekitaldian, Laura Delgadok, Nora Bolinagak eta Lander Echebarriak kontzertua eskaini zuten; Dvoraken *Bi bibolin eta biolarako hirukotea Do maiorrean* interpretatu zuten. Bilbao Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Bartolome Ertzillan, maiatzaren 18an.



Durango Udaleko, Aldundiko eta BOSeko ordezkariak.

Gai librean

180 gradu

Kotxean zatoz lanetik, zebra-bide eta stop dioten seinaleekin denbora negoziatzen, espaloietan aurrera eta atzera gurutzatzen diren bizitzetako. Benetan bizi ez dituzten errealitateak imajinatzen dizkiezu gorputz orori, baikorra izan ohi da zure besteekiko epaia.

Ez duzu uste izaten oinezko horrek ez dakiela, adibidez, ortu bat atontzen. Zu zara, Jakoba Errekondok Barruan Gaude podcastean esan bezala, lurra lantzen ez dakielako kultura ez den bakararra. Obsesioek jandako kaletar ezjakina. Begira hari, badu piperrak eta tomateak bereizten dakienaren traza. Biribilgunetik ateratzear zaudela erabaki duzu hurrengo semaforo gorrian bilatuko duzula mugikorrean letxuga bat balkoian nola landatu.

Hara bestea, kablerik gabeko aurikularrak jantzita zугanantz korrika



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Benetan bizi ez dituzten errealitateak imajinatzen dizkiezu gorputz orori, baikorra izan ohi da zure besteekiko epaia

Seguru berak ez duela kirola egiten bizitza kapitalista hau jasateko neurotransmisore bila

datorren neska gaztea. Seguru berak ez duela kirola egiten bizitza kapitalista hau jasateko neurotransmisore bila, ezta lodifobiari eskutik helduta

gorputz argal eta gihartsu baten desiraren esklabu delako ere. Askea dirudi. Udako iragarki bateko protagonista. Badu korrikalari planta. Tipi-tapa. Aurrez aurre aurkitu ditu bi gizon kontrako norantzan, hizketa bizian, eta lekua egin diote pasa dadin. Badoa. Ez hori bakarrik, ordea. Bietako batek begiekin jarraitu dio, 180 gradu, burua erabat biratu arte, neskaren ipurmasailak nolakoak diren buruz ikasi nahiko balu bezala. Disimulurik gabe, egun argiz eta jendez zein autoz betetako kalearen erdian.

Normaltasun ageriko horren biolentziak eztandarazi dizu baikortasuna.

Orduantxe erabaki duzu kode zibila aldatzeko sinadura bilketa abiatzea: «Nik nahi dut edonork izan dezala lizentzia kalanbraz bihurritzeko moduko deskarga elektriko bat egiteko publikoki zuen barrabiletan».

“World Tour mailako lasterketa bateko zuzendari izatea ametsa da niretzat”

Alaitz Biritxinaga Itzuliko lehenengo emakume zuzendaria bihurtu da eta prest dago erronkari aurre egiteko

TXIRRINDULARITZA • I.GALARZA

Alaitz Biritxinagak zainetan du txirrindularitza. Azken mende laurdena epaile lanetan egin du, baina heldu zaio “amets” lez bizi duena: Itzulia Women lasterketako zuzendaria izango da. Gaurtik hasi eta domekara arte, hiru etapa jokatuko dira; tartean, Mallabian hasi eta amaituko dena bihar.

Zelan doaz lasterketa aurreko egunak?

Urduritasun hori dut, ea zer gertatuko den. Tira, urduritasuna baino gehiago, ezjakintasun puntu horrek sorrazten didan zera hori dut. Izan ere, inoiz ere egin ez dud lan bat egin behar dut. Gainerakoan, ondo nago.

Zelan jaso zenuen Itzuliko zuzendari izateko eskaintza? Zelan gauzatu da guztia?

Julian Erasok [gizonezko Itzulian zuzendaria] deitu zidan egun batean, txarto oroitzen ez badut gizonezkoen Itzulia hasi baino astebete edo egun batzuk lehenago. Lasterketa hartan ere lan egin nuen, deia ikusi nuenean pentsatzen nuen lasterketaren inguruan zerbait aipatzeko besterik ez zela izango. Eta berba egiten hasi eta “konpromisotxo bat dut zuretzat” esan zidan. Berritasunen bat-edo izango zelakoan, sorpresa eman zi-

dan: “Emakumezkoen lasterketako zuzendaria izango zara”. Guztiz harrituta geratu nintzen.

Zuretzat ezusteko pozgarria izango zen.

Horrela izan zen, bai. Momen-tuan pentsatu nuen gauza bakarra World Tour izan zen [maila gorena-ri horrela deitzen zaio]. 26 urtean mundu honetan lanean ibili os-tean, World Tour mailako lasterke-ta bateko zuzendaria izatea ametsa da niretzat... Sinestezina. Nork esango zion ezetz eskaintza horri? **Zeintzuk dira, orain arte behintzat, zuzendari izateak ekarri dizun alde ona eta alde txarra?**

Alde ona jendeak zoriondu izana. Hor konturatzen zara jendeak ba-loratu egiten zaituela. Eta txarra, ez du txarrik... oraindino (barrez). **Lasterketetako epaile lanetan zabil-tza, 26 urtez.**

Hori da. Itzulian ez, Itzulian epai-leak bideratzen, akreditazioak kudeatzen eta, zelanbait, haien zuzendari lanak egiten aritu naiz. **Itzuliko lehenengo emakume zuzen-daria izango zara. Zer suposatzen du horrek zuretzat?**

Mordoa suposatzen du, bulegoko lanean zein errepidean emakume asko gaude lanean. Eta nahiz eta oraindino aurrerapausoak egitea falta den, orain dela 26 urte oke-rrago geunden. Sari hau niganako



Alaitz Biritxinaga Abadiano

Itzulia Women-eko zuzendaria

ATXONDO | 1974

Enpresa hauetako batzuek irudi bat saldu gura izaten dute hemen: ingurumenagaz konprometituta daudela eta feministak direla

estimugaitik eman didatela sen-titzen dut.

Emakumeak protagonismoa hartzen ari diren sentsazioa duzu? Antolakun-tzan zein errepidean.

Jokoan dagoen gizonezkoen Gi-roan, esaterako, emakume bat dago zuzendari, Rosella Bonfanti. Deigarria da World Tour mailako Itzulian ere emakume bat izatea zuzendari. Egia esan, urte osoko lanetan geroago eta emakume gehiago dabil. Baina, gutxi ez garen arren, errepidean gehiago behar ditugu.

Lasterketari begira, zelako lasterketa itxaroten duzue?

Donostiako etapa oso gogorra izango da. Iaz etapako ibilbidea ikustera joan ginen eta oso ibilbide

zaila dela ikusi genuen. Goi mai-lako lasterketa izango dugu gure errepideetan, eta goi mailako txi-rrindulariek parte hartuko dute.

Mallabiko etapara etorrita, pizgarri nabarmen bat du: Karabieta.

Bai, lasterketa lehenago apurtzen ez bada. Muniketa, Bizkaiko Be-giratoria... igoeratxo asko dago bidean.

Amaiera ere ez da makala.

Ez gero. Ez da mutilen lasterketa amaitu zen leku berean amaituko, beherago baino. Ea eguraldiak la-guntzen duen.

Durango-Durango Klasikoak Annemiek Van Vleuten eta beste izar batzuk batuko ditu martitzenean

Lasterketa gogortzeko helburuagaz, ibilbideari Areitorako iguera gehitu diote San Juanerantz joan aurretik

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Maiatzaren 17an, Durango-Du-rango Emakumeen Laboral Kutxa Saria lehiatuko dute Durangaldeko errepideetan. Proba 15:00etan hasi-ko da, Ezkurdin.

Parte hartuko duten 23 taldee-tatik zazpi World Tour mailakoak dira eta gainerakoak UCI Team mailakoak. Azken horien artean Bizkaia-Durango dago. Eskualde-ko taldeak lasterketaz beteta du

maiatza. Valentziako Itzulian eta Eibarko Sari Nagusian aritu eta gero, gaur Itzulia Women lasterketa hasiko du, Durangoko Klasikoan parte hartu aurretik.

Goi mailako txirrindulariek par-te hartuko dute Durangon. Esatera-ko, orain gutxi Lieja-Bastogne-Lieja klasikoa irabazi duen Annemiek Van Vleuten-ek. Ziklista herbehe-retarrak birritan irabazita dauka Durangoko Klasikoa.

Aurten, 113 kilometroko ibil-bidea "gogortu" gura izan dute Duranguesa elkarteko antolatza-i-leek, ohar batean azaldu dutenez. Horrela, Miotako itzuli bat Arei-tiorako igoeragaitik ordezkatu dute. Aldaketa horregaz, lasterketa amaiera benetan exigentea izango da, txirrindulariek Areitio, Garai eta Momoitioiko San Juan igoerak kateatuko dituzte eta.

Amaierari dagokionez, iaz Urki kalean amaitu zen, baina aurten ohiko helmuga berreskuratuko dute, Ezkurdin.



Annemiek Van Vleutenek birritan irabazi du Durangoko Klasikoa.

Tabirako Baqueko gizonak EBA mailara igo daitezke asteburuan, Donostian

Goi mailako denboraldi baten ondoren, igotzeko hautagaiak dira eta asteburuan Lauko Finala jokatu dute



Tabirako Baqueko gizonen talde nagusia.

SASKIBALOIA • J.D.

Tabirako Baqueko gizonen talde nagusiak Euskadiko maila nagusitik Espainiako EBA mailarako saltoa eman dezake asteburuan. Horretarako, Donostian jokatu den Lauko Finala irabazi beharko du. Erronka ez da nolanahikoa. Finalerdietan Tecnun Askatua, etxeko taldea, izango du aurkari. Harmailetako giroa apur bat orekatu guran, Tabirakok doako autobusa ipiniko du partidua ikustera joateko. Partidua zapatuan izango da, 18:00etan. Bigarren finalerdia Take Tolosa eta Loiola Indautxu

taldeen artekoa da. Irabazleek domekan jokatu dute finala.

Otsailean Lehen Nazional Mailako Kopa irabazi zutenean, zuzenean sailkatu ziren Lauko Finalera. Orduko hartan, etxeko taldea izan zuen kontrario finalean, Mondragon, eta menderatu egin zuen.

EBA maila ez da arrotza Tabirako Baquerentzat. Orain gutxi, 2019/2020 eta 2020/2021 denboraldietan hain zuzen ere, EBAn jokatu zuen. Ondoren, iaz mailaz jaitsi zen eta aurten berriro bertara itzuli daiteke.

Frades eta Garitaonandia bikain munduko txapelketan

Mugarra triatloi taldeko triatletak hamar onenen artean sailkatu dira Ironmanean euren adin tartean

IRONMANA • J.D.

Joan zen zapatuan, Ironmanen munduko txapelketa lehiatu zuten AEBetako Utah estatuan, eta hantxe izan ziren Mugarra Triatloi Taldeko Gurutze Frades eta Gorka Garitaonandia. Biek maila bikaina eskaini zuten.

Gurutze Fradesek bederatzigarren tokian amaitu zuen. Ironmanen munduko txapelketa batean inoiz lortu duen posturik onena da. Ordura arte, 2019an Konan lorturiko 15. postua zen bere

langa. "Oso lehia gogorra izan da, hamar onenen artean sartzeko borroka oso estua izan da azken unera arte. Orain gozatzeko unea da", azaldu du bere sare sozialetan.

Eguneko beste protagonista Gorka Garitaonandia izan zen. Durangarrak laugarren amaitu zuen bere adin tartean (50-54 urte). "Beharbada 15 onenen artean egotea itxaroten nuen, baina ez laugarren, hain aurrean, maila itzela dago eta. Oso pozik nago", adierazi du.



Gurutze Frades eta Gorka Garitaonandia Utah-n.

Durango Kirol Taldeak puntuak batzea du helburu Durangoko jardunaldian, mailari eusteko

ATLETISMOA • J.D.

Atletismoko Lehenengo Mailari eustea garesti dago eta erronka oraindino handiagoa da talde igo berria bazara. Horixe da Durango Kirol Taldeko gizonen kasua. Lehenengo jardunaldian txukun aritu ziren eta beste hainbeste behar dute bigarren. Zaleen animorik ez zaie faltako, Durangoko Arri-pausuetan lehiatuko dira eta, zapatuan, 16.00etan. Eurekin batera, Hospitalet, Algeciras eta Irungo Super Amara Bat dira Durangon arituko diren beste taldeak. Mailari eusteko, azken jardunaldira begira ahalik eta punturik gehien batzea da DK-Tren helburua.

Taldeari laguntzeaz batera, hainbat atletek errekor indibidualak ere bilatuko dituzte. Bidasoako Iker Arozenak luze-ra-jauziko Euskadiko errekorra berdindu zuen joan zen asteburuan. Lortuko ote du Durangon marka hori hobetzea? Bestalde, DKTko Markel Fernandez sope-larra Euskadiko 400 metroko probako errekorra hobetzetik oso gertu dago 20 urtez azpiko mailan. Eta Paul Ubiernak Bizkaiko errekor bat apurtu dezake, 1973koa; hesidun 110 metroko lasterketakoa, hain zuzen ere.

Jokaldia

Maiatza, urte guztiaren ardatza

Denboraldia bukatzeaz dago. Batzuk bukatu berri dugu. Beste batzuentzat, denboraldiko momenturik garrantzitsuenan, dena jokatzeko dago. Batzuk poztasunez eta txapeldun eta beste batzuk triste baina egindako denboraldi bikaina ahaztu gabe. Batzuetan, partidua garrantzitsu bat galtzeak ez du denboraldi osoan egindako lan bikaina zapuztu behar.

Zornotzan, bi egoerak bizi izan ditugu. Alde batetik, nesken taldeak Ixerbe-koan (topera egon zen beteta), Euskadiko Bigarren Mailara igotzeko Lauko Finala irabazi du. Bikain. Bikain taldea, azken urteetan hasitakoa ondo baino hobeto bukatu dute. Bikain Josema Alcántara galdakoztarra, bere gidaritzapean taldeak aurrerapauso handia eman duelako bere joko mailan, eta bikain Naia



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Zornotzan, neskak Euskadiko Bigarren Mailara igo dira. Bikain taldea, azken urteetan hasitakoa ondo baino hobeto bukatu dute

Tabirako Baqueko mutilek EBA Mailarako igoera jokatu dute Donostia Arenan datozen egunetan

Fernandez eta Jon Nuñez Zornotzako nesken saskibaloian azken urteetan burututakoak eta lortutakoak berpiztu eta indartu egin dituztelako. Zorionak!

Mutlen kasuan, oster, ezin izan dira Play Offetako final-laurdenak gainditu. Teknei Zornotzak bi partidua gogor izan ditu. Lehenengoa Iruñian, 7 puntugaitik galdu zuten (74-67) eta etxean erabaki-

tzeko geratu zen. Baina taldea ezinean ibili zen eta ezin izan zuen aurkaria gainditu. Pena zeren eta Larrea, beteta, topera egon zen. Beste behin ere jarraitzaileak topera! Dena dela, aurten ere denboraldi itzela egin du taldeak. Aurrera!

Zaldibarren ere beste Lauko Final bat jokatu da asteburu honetan. Bertan, Oskar Sanchezek eta Iskander de Diosek zuzendu eta Urko Zamakonak koordinatzen duen taldeak Portugalete eta Berrio Otxoa menderatu zituen. Itzela! Bikaina giroa eta garaipena. Zorionak!

Hurrengo egunetan, Tabirako Baqueko mutilek EBA mailarako igoera jokatu dute, Donostia Arenan. Lehenengo semifinala bertako Tecnum Askatuak-en kontra. Klubak autobusa jarriko du taldea animatzera bertaraino joan nahi dutenentzat. Aupa Tabi! Ia berri onak ditugun! Aurrera!



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com




AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



IURRETA
Iurretako Udaletxearen ondoan. Etxebizitza eta atikoak. 2 eta 3 logela eta 2 komun. Baxuak lorategiarekin. Denak terrazekin. Trastelekua eta garajea.
232.000€- tik aurrera




DURANGO
MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara. Tarstelekua eta garajea.
C.E.E= E



IURRETA
MASPE KALEA: 2 logela (lehen 3), komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza.
C.E.E= E 168.500 €



DURANGO
APARTAMENTUA: Logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Garajea.
C.E.E=D 192.800 €



DURANGO
ANDRA MARI: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea eta egongela.
C.E.E= E 98.000 €



DURANGO
SASIKOA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Ganbara. Garajea aukeran. Etxe guztiak kanpora ematen du.
C.E.E.= E 206.000 €

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €.**

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN


Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIKUAN


BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
73,77 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoa- iparralde) Herriko irteeratik gertu, zonalde berdeak, zonalde lasaia. Egoera onean. 4,48 m²-ko ganbara barne. Garajearekin + 17.000 €.
235.000€ C.E.E=E




MATIENA
57 m²
2 logela
SOLAGUREN: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, despentsa eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du (Hegoalde). Leku onean kokatua. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 6 m²-ko ganbara.
C.E.E:F. 120.000 €.




IURRETA
89,16 m²
3 logela
BIXENTE KAPANAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. (Hegoalde). Egoera onean. Leku onean kokatua, erdiguinetik gertu. 10 m²-ko ganbara. Berogailua eta ur beroa, elektrikoak.
C.E.E:Bidean 190.000€



IURRETA
70 m²
3 logela
ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu.
173.000 € C.E.E: F



DURANGO
85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.
249.000 € C.E.E: Bidean



ABADIÑO
70,4 m²
4 logela
ARLOZABAL: 70,4 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 10,82 m²-ko trastelekua eta 19,32 m²-ko garajea.
189.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela, eta komuna. Balkoia. Ganbara eta igogailua. **160.000 € / E.E.Z=G**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000€ /E.E.Z=F**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 13 · 09:00-09:00 MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA ZAPATUA, 14 · 09:00-09:00 BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-13:30 GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO SARRIA SASIKOA 17, DURANGO NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGOBAZNGO CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZAIRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-14:00 IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	DOMEKA, 15 · 09:00-09:00 GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGONAVNGO SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA ASTELEHENA, 16 · 09:00-09:00 IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA MARTITZENA, 17 · 09:00-09:00 SARRIA SASIKOA 17, DURANGO SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA EGUAZTENA, 18 09:00-09:00 UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA EGUENA, 19 · 09:00-09:00 CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Nai!** Egun zoragarri bat pasau deixule espero dogu! Topa zure alde! Asko maite zaitugu! Zure kuadrilla-ko tiabuenak.



Durangoko **Angelek** eta **Begoñak** urrezko ezteiak ospatu zituzten maiatzaren 13an. Egun ederra pasatu genuen familia eta lagun artean. Mosu handi-handi bat bioi denon partez. Asko maite zaituztegu!



Maiatzan 9dxen **Ekin** 5. urtegune ixen zan eta topera ospatu eban lagunekin ta etxekuekin. Zoridxonak, Ekitxu, ta jarraitu bixipoz horregaz!



Gure etxeko neskak 9 urte egingo ditu 17an. Zorionak, **Garazi!** Ondo pasa zure egunean. Asko maite zaitugu!

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 27° / 14°	ASTELEHENA 🌧️ 27° / 14°	EGUAZTENA 🌧️ 26° / 13° 🌀
DOMEKA 🌧️ 28° / 14° 🌀	MARTITZENA 🌧️ 28° / 14°	EGUENA 🌧️ 26° / 14° 🌀

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

liburudenda

info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1#



BASA

Miren Amuriza (Elkar)

2#



ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Eider Rodriguez (Susa)

3#



DENA AMETSA DEN IRUDIPENA

Leire Vargas (Elkar)

4#



EZ ERRAN INORI

Maddi Ane Txoperena (Elkar)

5#



IZURDEEN AURREKO BIZITZA

Kirmen Uribe (Susa)

“Euskal Herrian erreferente izan gura nuke, horixe da gure erronka”

Jon Iñaki Yurrebasok Mendi Goikoa Bekoa jatetxea hartu zuen orain urtebete, eta Basque Culinary Centerrek gastronomiaren talentudun 100 gazteen artean sartu du apirilean



Jon Iñaki Yurrebaso Navajo

Mendi Goikoa Bekoa

GETXO | 1992

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Jon Iñaki Yurrebasok Basque Culinary Centerren (BCC) ikasi zuen eta Kudeaketa eta Enpresa sorkuntzan espezializatu zen. Elorrioren bizi den getxoztarrek Alvaro Garrido eta Torres Anaia Michelin izarrekin egin zituen praktikak, eta Londresen ere lan egin du. Gradu amaierako lanerako, sukaldaritza eskolak eman zituen Gurutze Gorrian, gizarte-bazterkerian zeudenentzat.

Zelan hartu duzu BCC-ren aitortza?

Bertan ikasi nuen eta halako aitortza batengaitik bueltatzea pozgarria da. Ondo ari naizen seinale izango da. Gainera, gastronomiaren

ren arloan hainbat sektoretan ekitea kontuan hartu du. Zerrenda horrek hiru proiektu ekintzaile batu ditu Durangaldean: Bizio sagardoarena, Panarra okindegiarena eta Mendi Goikoa Bekoarena.

Zelan sartu zinen abentura honetan?

Nazioarteko Hotel zuzendaritzari buruzko masterra egin ondoren, Dani Garciaren jatetxean lan egin nuen, Marbellan (Andaluzian), catering arloan, eta hiru lagunen artean Mendi Goikoa Bekoa hartzeko aukera sortu zen. Baina pandemia etorri zen. Azkenean, neuk hartu nuen. Familiaren babesaren ezinbestekoa izan dut eta oraindino egunero sentitzen dut halako bertigoa.

Urtebete egin duzu, urte gogorra.

Bai, urte gatxa izan da. Jendea etxetik irten berri zela hasi ginen, hainbat neurri betetzeko, aldaketak...

Urte gatxa izan da, baina izan ditugu bezeroak. Jakina zen Mendi Goikoa Bekoa zabaltzeko ginel eta gogoz hartu zuten hori

baina izan ditugu bezeroak. Jendeak bazekien zabaltzekoak ginel eta gogoz hartu zuten. Gainera,

herriagaz hartu-eman beroa izatea dugu helburu. Bertako kuadrilla bat egunero dator meriendatzera. Elkartearen batu ezin zirelako hasi ziren etortzen, eta gero jarraitu egin dute. Hori oso garrantzitsua da guretzat.

Zein da zuen eskaintza gastronomikoa?

Parrillan kozinatzeneko joera geroago eta handiagoa da eta bide horretan ekin gura diogu guk ere, baina gertuko produktuak eta sasoikoak eskaintzea da gure helburua. Horretarako, ezinbestekoa da bezeroa hezteko. Zero kilometroa oso modan egon da eta ematen du dena sartzen dela hor, baina ez da horrela. Egundorik ortuan, itsasoan, lantokian... dagoen gertuko produktore eta langileak da garrantzitsua niretzat, eta horri eman gura diogu lekua, haien produktua eskainita eta produktuaren jatorria zein den jakinda. Euskal kultura eta gastronomia lehenengo lerroan ipintzeko, horrela egin behar da.

Parrillan kozinatzeneko joera geroago eta handiagoa da eta bide horretan jarraitu gura dugu guk ere, baina gertuko produktuak eta sasoikoak eskainita

Zein duzu etorkizunerako erronka?

Euskal Herrian jatetxea erreferente bihurtzea gura nuke. Jendeak ondo jatea eta gustura joatea etxera.

Isiltasunak lo egiten ei du zuenean.

Bai, hala da. Atea edo leihoa zabaldu eta ingurua ikustea baino ez dago. Badugu bikote bat hiru bat bider etorri dena, deskonektatzera.

Zein plater duzu zuk gustukoena?

Amaren entsaladilla errusiarra, asko ikasi dut berarengandik. Familian beti izan dugu ondo jateko ohitura.

Mendi Goikoa Bekoan herri kirolen sariketa bat antolatu zenuten iaz.

Bai, eta bide horretan jarraitu gura dugu. Askotariko ekitaldiak antolatu gura ditugu: yoga klasea gosari batez, bertoko ekoizleekin elkarlanean dastatzeko, show-cooking-a...

Lau-hortza

Ibai Zabala Gandarias Pilorari ohia



Traña, alajaina

Badago apirilaren bukaeran, Donien Atxa jaso ondoren, bere kale, plaza eta bazterrak festa giroz busten dituen auzo bat; Durangoko jaietan hasten den txosnarik gabeko ospakizunen sikate luze bati, San Blasatoko oasia tarteko, udaberriaren gure eskualdean jarri ohi den lehen txosnagunearekin bukaera ematen diona.

Badago azken hamarkadetan herriguneko institutua euskarara hurbildu duen auzo bat, era horretan, auzoko gazte gehienak euskararen jabe eginez. 80ko hamarkadako belaunaldiak D ereduko 8 ikasle eta B ereduko 30ez osaturiko ikasturteak ezagutu zituzten ikastetxe berean, gaur egun, D ereduaren ikasten dute gazte guztiak.

Badago iraganean ezkerreko boto espainolaren gotorleku izan zen auzo bat, non azken urteetan izan diren hauteskundeetan boz euskalduna gailendu den, ezker abertzaleak izan duen gorakada nabariari esker.

Eta badago bertsolaritzaren errimategian beti España hitzarekin errimatzen duten auzo bat, nahiz eta beste hainbat hitzekin errimatzeko aukera izan: apaina, tamaina, bikaina, eta abar. Benetan kuriozkoa mespretxuzko errimatze hori, bertsolariz mozorrotu eta España hitza hautatu ohi duten ustezko euskaltzale eredugarri horiek herri bereko beste auzo batekoak edo inguruko herrietakoak izan ohi direlako; auzune eta herri horiek beren euskalduntasuna lau haizetara harrotasunez zabaltzeko moduan baleude bezala. Baleude, bai; tamalez, ez daudelako.

Badago jai herrikoiak ospatzen dituen eta egunez egun euskaldunagoa den ezkerreko auzo bat: Traña, alajaina.



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

ESPEZIALIZAZIOA

- Industria-mantentzearen digitalizazioa



AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 9tik 27ra arte

